

## **Astean hiru saio, azkena larunbatetan, zergatik ez hiru saioak hezitzaile berarekin?**

Badakit astean zehar hezitzaile batekin aritzea eta larunbatetan beste batekin lan egitea arraroa izan daitekeela batzuentzat. Guretzat larunbatetako jardunaldiak astean zehar egiten dugun edozein saio bezain garrantzitsuak dira eta talde bakoitzarekin egin nahi dugun lana aurretik ezarria izaten dugu.

Alde batetik, antolakuntza aldetik ezinezkoa izaten da hezitzaile bakoitza bere bi taldeekin aritzea, askotan partidak aldi berean eta leku ezberdinetan izaten direlako: 9 hezitzaile, 16 talderentzat. Gure apustua ahalik eta kirol hezitzaile eta estruktura hobereana lortzearen aldekoa denez eta kontuan hartzen badugu talde bakoitzak suposatzen duen lan ordu kopurua, bere garaian erabaki zen hezitzaile bakoitzak talde bat baino gehiagorekin lan egitea. Alde batetik lan eskaintza interesgarriago izan zedin eta hezitzaileen egonkortasuna sustatu eta bestetik estrukturalki lan talde murriztago baino egonkorragoa izatea askoz ere egokiago eta emankorragoa zelako proiektuaren ikuspuntutik.

Bestetik, garrantzitsua iruditzen zait konturatzea hezitzaile bakoitzaren eginbeharra ez dela bere bi taldeekin egiten duen lanera mugatzen. Hezitzaileen lana ez da inolaz ere indibiduala, guztion artean lan talde bat osatzen dugu. Astero egiten ditugun bileretan bakoitzak bere taldeen izaera, motibazio maila, gora beherak, arazoak, ohar bereziak, hobetu beharreko aspektuak, zigorrak, landu beharreko trebetasunak .... aipatzen ditu eta denon artean hartu beharreko erabakiak hartzen ditugu (bilera hauetan aipatzen dira larunbateko jardunaldiaren gora beherak ere).

Beraz, hezitzaile bakoitzak badaki larunbatean aurrean izango duen taldearekin lan egiteko behar duen informazio osatu eta landua. Kirol hezitzaileen artean izaera ezberdineko pertsonak daudela argi dago, batzuk jarrera bat azaltzen dute eta beste batzuk erreakzio ezberdinak dituzte, baina azken finean denak gaude bide berean.

Nahiz eta batzuetan kanpotik horrela ez ikusi, larunbateko saioei (gehienetan partidak) garrantzi handia ematen diegu, asteko saiorik berezi eta intentsitate handienekoa baita haurrentzat; hau honela, indar handia jartzen dugu ondo joan daitezen eta gure helburuak lortu; gure helburuak egun horietan (partida irabaztetik urruti) ez datoz bat guraso batzuen helburuekin eta hor sortzen dira gaizki ulertuak. Argi utzi behar da saio horiek partidak direnean hurrek eta guk oso helburu ezberdinak ditugula, horregatik gara hezitzaile eta gurasoen ikuspegiak hurbilago egon beharko luke gureaz hurrenenaz baino.